

KORONABIRUSA - ATZOKO DATUAK

GIPUZKOAN

1 positibo berri
2.294 positibo guztira*

1.608 hildako EAEn
10 UCIn EAEn

NAFARROAN

13 positibo berri
5.416 positibo guztira

528 hildako
3 UCIn

*Hernanin 64 Astigarragan 21

Sendatuak EAEn: 17.925. Naf: 9.064.

Mundu osoko musikaz gozatzeko aukera izango da gaur, goizeko eta arratsaldeko kontzertuetan

'Kulturaz gozatu, elkar zaindu' da aurtengo San Joan egunetarako kultur lema. Horregatik, gaur 12:00etan 'Munduko musikak' ekitaldia izango da Atsegindegin, eta 20:00etan Bitartean folk taldearen txanda helduko da, kiroldegian.

HERNANI SAN JOANAK

San Joan jaiak ez dira ohi den moduan ospatzen ari, baina prestatu diren ekitaldiek asperetzeko unerik ez die eman hernaniarrei. Atzo goizean goiz hasi zen Diana herrian, kaleak eta auzoak esnatzen. Gero, Txistulari Banda eta Musika Bandak hartu zien testigua, eta goiz osoan zehar aritu ziren kaleei doinuak jartzen.

Arratsaldean, eguneko ekitaldi potoloak izan ziren. Hernaniko Bertso Eskolak antolatuta, bertso jaialdia izan zen Atsegindegin. Gero, musikarien txanda heldu zen eta Kilimak talde hernaniarra oholtza gainera igo zen, kiroldegiko pistan. Eguna amaitzeko, Xabi Solano eta Aukeran dantza taldearekin gozatzeko aukera izan zuten, bertaratu zirenek.

Bere aldetik, Kontrakantxak ekaineko egitarau kulturala antolatu da. Atzo mus txapelketa ospatu zen, eta bihar poesia errezitaldia izango da: *Madarikatuon biltzarra*. Hala ere, adierazi dute segurtasun eta osasun irizpideak betetzeko, %50eko aforoa izango dela ekitaldi guztietan.

Euskal Herriatik Argentinara, gaur gaueko kontzertuan

Goizean, Amher taldeak antolatuta, *Munduko musikak* ekitaldia izango da Atsegindegin. Egitarauan musikari lekua eman nahi izan zaio, eta horregatik antolatu dira emanaldi hauek.

Arratsaldean, Euskal Herriko eta Argentinako doinu eta erritmoak uztartzen dituen disko berria aurkeztuko du Bi-

EGITARAU

GAUR

12:00: 'Munduko musikak', Atsegindegin.

20:00: Bitartean musika taldearen kontzertua, kiroldegiko pistan.

tartean talde hernaniarrak. *Kulturaz gozatu, elkar zaindu* ekimenaren barruan. *Kreole* diska berriaren aurkezpen-kontzertua izango da, arratsaldeko 20:00etan kiroldegiko pistan.

Lau taldekide dira, folk banda osatzen dutenak, eta hainbat instrumentu fusionatzen dituzte emanaldian: Haritz Ezeiza, txistua eta albokarekin; Ixiar Jauregi, perkusioa eta ahotsa; Sebi Ustarroz, gitarra eta ahotsa, eta Garazi Navas, akordeoiarekin. Gogotsu daude, gaueko emanaldirako: «Jotzeko itzelezko gogoak ditugu... Zuen zain egongo gara!», beraien sare sozialetan.

Gero, Iñaki Salvador, Garbiñe Insausti eta Nahia Valleren kontzertua zegoen programatuta egitarauan. Hala ere, «arrazoi pertsonalak» direla medio, bertan behera utzi behar izan dute, gaurko zuten zita.

Aurretik izena eman behar da, ekitaldietara joateko

«Aforoa mugatua denez», antolatu diren ekitaldi guztietarako aldeztu aurretik izena eman behar dela adierazi du Udalak. Gainera, emanaldi guztiak aulkietan eserita izango dira, eta «eserlekuen artean distantzia-



Eli Pagola, gai jartzaille, Maialen Lujanbio eta Agin Laburu Atsegindegin.



Musika banda Hernaniko auzoetan barrena ibili zen.

mantenduko da». Pilaketak saihesteko sarrerak eta irteerak ere kontrolatu egingo dira, eta Udalak emandako argibideei kasu egiteko eskatu du. Eta az-

kenik, kiroldegiko pistara sartzeko beharrezkoa izango da gel desinfektantea erabiltzea, «segurtasuna bermatzeko».

Bestalde, emanaldi guztietara

rako zozketa bidez banatu dira sarrerak. Horregatik, ezinezkoa izango da emanaldietara bertaratzea aldeztu aurretik izena eman ez bada. **K**

ELISKO JAURLARITZA GOBIERNO VASCO
CEPA Hernani HHI
Helduen hezkuntza
Matrikula epea ekainaren 22tik 30era arte
Matrikula egiteko bi modu:
☎ 943 33 53 18 ✉ 012076aa@hezkuntza.net
Ordutegia: 10:00 - 14:00
• DBH-ko TITULUA lortu • Hizkuntzak: Ingelesa
• Zure ikasketak jarraitu • Atzerritarrentzako gaztelera

Allianz ASEGURUAK
bizitza -
ibritsuak -
ibigailuak -
etxeak -
komertzioak -
enpresak -
ardura zibila -
finantz aseguruak -
inbertsioak -
agustin ezponda irizar
agentzia
Nagusia, 13
Telf.: 943 55 73 26
Faxa: 943 33 57 71

COVIRAN
AINHOA
Janaridenda
Nagusia 20, Astigarraga
943 55 12 93

taegi edarietxea
Zatoz eta probatu gure ardatzak diren berezitasunak:
ARDOA
GARAGARDOA
KAFFE EZBERDINAK
TERAPIAK
BAZKARI ETA AFARIAK
Andre kalea, 33 Hernani
943 12 84 03 / 681 394 083

EGURALDIA GAUR Lainoak ugarituko dira eta ezegonkortasuna nagusituko da. Goizean laino batzuk ager daitezke eta arratsaldean zaparradak eta ekaizak espero dira. Kostaldean mendebaldeko haizea ibiliko da eta tenperaturaren jaitsiera nabarmenagoa izango da. **Min.18° / Max.25°**

BIHAR Giroak freskatzera egingo du eta iparraldeko haizea nagusituko da. Laino ugari agertuko dira eta zaparradak botako ditu nonahi. Oraingo honetan, tenperaturaren jaitsiera bikia izango da. **Min.17° / Max.20°**

DOBERA EUSKARA ELKARTEA

LAGUNTZAILEAK

Hernaniko Udala

Astigarragako Udala

Auzo Udala

GOIZUETAKO UDALA

ARANOKO UDALA

TAXIAK: 943 550093 (Hernani) 622 222 343 (Astigarraga) 948 514037-948 514019 (Goizueta) **UDALTAINGOA:** 943 248900 (Hernani) 943 335230-699 487 587 (Astigarraga) **DYA:** 943 464622
AUTOBUSAK: **Garayar:** 943 556658 **Areizaga:** 943 452708 **Korroa Goizueta-Hernani:** 948 514037 **ANBULATORIOA:** 943 006666 - 900 203050 (Hernani) 943 335644 (Astigarraga) 948 510800 (Goizueta) **Egunez: Etxebeste** Elkano, 9 (Hernani) **943 552087** **Gauzez: Urrutia** Etxeberri, 1 (Hernani) **943 557738** **Goizueta:** Nagusia 64 **948 514353**

ISUO JARMURAZA GOBIERNO VASCO

Gipuzkoako Foru Aldundia

DOBERA BAZKIDEAK / KRONIKALARIAK

Datorren denboraldirako frontoian ordua hartzeko epea zabalik da

Uztailak 1ean izango da pilota lekuan izena emateko azken eguna, eguerdiko 13:00etan, eta eguna eta ordua zehaztu beharko da.

EREÑOTZU FRONTOIA

2020-2021 denboraldirako Ereñotzuko frontoian ordua hartzeko epea zabaldu dute. Horretarako, izena eman behar da, datorren asteazkena baino lehen. Eguerdikiko 13:00ak arte izango dute aukera pilota lekua erreserbatzeko.

Bestalde, Auzo Udalak adierazi du datorren denboraldiko

orduak 19:00etatik aurrera hartu ahal izango direla, 22:00 arte. Jakinarazi dute, azken ordu hau ere hartzeko aukera izango dela. Beraz, egunean lau ordu gordeko dira entrenamendu hauetarako.

«Eguna eta ordua zehaztu beharko dituzte»

Datorren denboraldian frontoian entrenatu nahi duenak izena ematen duenean hainbat

Denboraldiko orduak 19:00etatik aurrera hartu ahal izango dira, 22:00ak arte

xehetasun eman beharko ditu. Hain zuzen, urtean zehar frontoira joan nahi duten guztiak eguna eta ordua zehaztu beharko dituztela azaldu dute ardura-dunek. Erreserbatzeko eskaera ordu berdinerako egiten bada, zozketa bidez erabakiko da, nori egokituko zaion. **K**

Biteri kultur etxeak hainbat zerbitzu irekiko ditu, gaurtik aurrera

Ikasgela, erakusketa gela eta liburutegia irekiko dira gaur, eta udako ordutegia jarriko da martxan, 09:00etatik 14:00etara bitartean.

HERNANI BITERI

Koronabirusa dela eta orain arte itxita egon dira Biteriko gela gehienak, eta zerbitzuak ere ezin izan dira eman. Hala ere, gaurtik aurrera ikasgela, erakusketa gela eta liburutegia zabalik egongo dira.

Liburutegia orain arte mai-legurako bakarrik zegoen zabalik, baina gaurtik kontsultarako eta irakurtzeko aukera ere

izango da. Erakusketa gelari dagokionez, Nagore Legarreta argazkilariaren *Suzko irudiak* erakusketa egongo da ikusgai, uztailaren 17ra arte.

Bestalde, irekiko diren areto guztietan aforoa murriztua izango dela adierazi du Udalak. Beharrezkoa izango da «kultur etxeak ezarritako babes eta segurtasun neurriak errespetatzea». Horregatik, maskarilarrekin egin beharko dira sartu

irtenak. Gainera, erabiltzaile guztiei tenperatura hartuko zaie sarreran, eta distantzia mantendu beharko da.

Gainontzeko leku itxietan egiten den moduan, Biteriko gela hauetara sartzeko ere gel hidroalkoholikoa egongo da, «higienea zaindu» behar delako.

Udako ordutegia jarriko da martxan, gaurtik

Hiru gelen irekierarekin batera, udako ordutegia hasiko du kultur etxeak. Gaurtik aurrera 09:00etatik 14:00etara bitartean egongo da zabalik, eta uztaila eta abuztuan itxita egongo da. **K**

Realeko taldeek Zarkumendegin eta Zubipen entrenatuko dute

Hiru astez egingo dira saioak, pixkanaka eritmoa hartzeko.

HERNANI-ASTIGARRA FUTBOLA

Gipuzkoa osoko herri desberdinetako futbol zelaian ari dira entrenatzen egun hauetan, Realeko talde desberdinak. Zubipez gain, Astigarragako Mundarro zelaian ere arituko dira, eta gehienez 60 mintuko saioak egingo dituzte.

Zubietan osasun sailak emandako gomendioak betetzea ezinezkoa denez talde guztiak bertan egonda, lurralde osotik banatu dira Realeko taldeak, udako oporrak hartu aurretik. **K**



Gehienez 12 jokalarik eta bi entrenatzaile elkartu dira entrenamenduetan.

Hiru sari potolo jokoan, Egunean Behin lehiaketan

Aste honetako sailkapenaren arabera emango dira sariak, eta parte-hartzaile guztien artean zozketatuko dira.

URUMEA KRONIKA-DOBERA

Egunean Behin joko denboraldiko azken astean sartu da eta horregatik, Kronika-Doberak duen taldean hiru sari potolo banatuko dira, parte-hartzaile guztien artean. Lehendabiziko postua lortu duenak; Errigora produktuen lote bat, Dobera elkarteko liburuen pack-a eta Kronikan zoriontze bat jartzeko aukera. Lehiaketan bigarren gelditu denak; Sagardo kaxa bat eta Kronikan zoriontze bat. Eta zozketan sarrituak; Errigorako produktuen lote bat eta Doberako liburuen pack-a.

Bestalde, lehiaketan parte hartzeko eta saria eskuratu ahal izateko, beharrezkoa izango da aplikazioa mugikorren jaitzita izatea.

Zozketan parte-hartzeko aukera, aste osoan zehar

Saria lortzeko beharrezkoa da Kronika-Doberak duen taldean sartuta egotea. Hala ere, aste osoan zehar egongo da saria eskuratzeko aukera. Izan ere, asteko edozein egunetan sartu daiteke taldera. <https://eguneanbehin.app/link/3MAoZRigA7>

Hiru egun igaro dira eta atzo 19:00ak arteko sailkapena hau xe zen: Iñaki zegoen lehenengo postuan 242,29 punturekin; bigarren postuan, 12 puntura, Ibai.F dago, lehenengo postua galdu eta gero, 230,24 punturekin; eta sailkapeneko hirugarren postua Izayer-entzako da 223,05 punturekin. **K**

Ikastolako tabernako bolondresei, eskerrak

GOIZUETA JAIK

Aurtengo Amabirjin Fiestan bertan behera gelditu dira. Hala ere, egoera hau aprobetxatu nahi izan dute Goizuetako Ikastolako batzordekoek, 1978. urteaz geroztik festaren ikur den ikastolako tabernan lan egin duten ehunka herritarrei eskerrak emateko. Aldi berean, datorren urtean berriro ere «beti bezain indartsu» bueltatuko direla adierazi dute: «seguru gaude bide lagun izanen zaituztegu orain arte bezalaxe. Gora Goizuetako fiestak! Gora zuek!»

Bertan behera, gaurko kontzertua

HERNANI SAN JOANAK

Suspenditu egin behar izan dute Iñaki Salvador, Garbiñe Insausti eta Nahia Valleren gaur gaueko kontzertua. Programazioan ezarritako zegoen 20:00etan izango zela, baina «arrazoietan pertsonalengatik» bertan behera utzi behar izan dute. Hala ere, prestatutako gainontzeko ekitaldiak egingo direla ziurtatu du Udalak eta arratsaldean, Bitartean folk taldera arituko da kontzertuan, kiroldegiko pistan.

KZ Guneak zuzeneko hitzaldia online

URUMEA KZ GUNEA

Maiatzean zuzeneko urrutiko hitzaldien «harrera ona» ikusita, KZ Guneak ekainean zehar ere zuzeneko hitzaldi batzuk prestatu ditu. Gaurkoa azkenaurrena izango da *Azken gailu teknologikoak ezagutu* izenburuarekin. 11:00etatik 12:00etara bitartean izango da, gaztelaniaz. Jakinarazi dute sarrera libre izango dela eta ez dela beharrezkoa aurretik izena ematea.

Santiotako Jai Batzordeko bilera, gaur

ASTIGARRAGA SANTIO JAIK

Festetan zer egin erabakitzeko, bilera egingo dute 18:30etan Udaleko ordezkariak eta herriko zenbait talde eta eragileak.

IRAGARKI MERKEAK

Iñigo Royo Masajista. Masajea, naturopatia, osteopatia, kinesologia, reiki, homeopatia, akupuntura,... **Deitu: 943 33 28 94 - 626 80 76 33 (Agustindarren plaza, 4)**